## LURRALDE ANTOLAMENDU ETA INGURUMEN SAILA

### Zk-2318

306/2001 DEKRETUA, azaroaren 20koa, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa ezartzen duena (hutsen zuzenketa).

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen 155/1993 Dekretuak 24.1 artikuluan xedatzen duenez, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzari dagokio aldizkarian argitaratutako testuetan egindako tipografia edo inprimaketa hutsak zuzentzea, nahiz bere kabuz nahiz doakion organo edo erakundeak eskatuta, baldin eta hutsek xedapenen esanahia aldatu edo horiei buruzko zalantzak sortzen badituzte.

Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailaren egitura organikoa ezartzen duen azaroaren 20ko 306/2001 Dekretua 2001eko azaroaren 28ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen (230 zenbakia), eta aipatutakoen moduko hutsak gertatu zirenez, dagokien zuzenketa egiten da ondoren:

– Dekretuaren 10.b) artikuluan, 21386. orrialdean, honakoa dioenean:

«Lurraldea antolatzeko instrumentuei buruzko txostenak prestatzea Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordearen eta Lurralde Politikarako Aholku Batzordearen eremuaren barruan...»

honakoa esan behar du:

«Lurralde eta hiri antolaketarako instrumentuei buruzko txostenak prestatzea Euskal Herriko Lurralde Antolamendurako Batzordearen eta Lurralde Politikarako Aholku Batzordearen eremuaren barruan,....»

### Zk-2319

82/2002 DEKRETUA, apirilaren 9koa, Euskal Herriko Ingurumen Batzordearen osaketa eta funtzionamendua arautzen duen apirilaren 11ko 69/2000 Dekretua aldatzeko dena.

Otsailaren 27ko 3/1998 Legeak —Euskal Herriko ingurumena babesteko Lege Orokorra— Euskal Herriko Ingurumen Batzordea sortu zuen. Batzorde hori organo aholku-emailea da eta Ingurumen arloaz arduratzen den Sailari atxikita dago; bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumen arloan diharduten administrazioen harremanak, parte hartzea eta koordinazioa

## DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y MEDIO AMBIENTE

### N°-2318

DECRETO 306/2001, de 20 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente (corrección de errores).

El artículo 24.1 del Decreto 155/1993, por el que se regula el Boletín Oficial del País Vasco, establece que la Dirección de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento rectificará de oficio o a instancia del órgano o entidad interesado los errores tipográficos o de impresión que se produzcan en la inserción de los textos publicados, siempre que supongan alteración o modificación del sentido de los mismos o puedan suscitar dudas al respecto.

Advertidos errores de dicha índole en el texto del Decreto 306/2001, de 20 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, publicado en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 230 de 28 de noviembre de 2001, se procede a su corrección:

– En el artículo 10.b) del Decreto, página 21386, donde dice:

«La elaboración de las ponencias técnicas sobre los instrumentos de Ordenación del Territorio, en el ámbito del funcionamiento de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco …»

debe decir:

«La elaboración de las ponencias técnicas sobre los instrumentos de Ordenación del Territorio y Ordenación Urbana, en el ámbito del funcionamiento de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco …»

### N°-2319

DECRETO 82/2002, de 9 de abril, de modificación del Decreto 69/2000, de 11 de abril, por el que se regulan la composición y funcionamiento de la Comisión Ambiental del País Vasco.

La Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, crea la Comisión Ambiental del País Vasco, como órgano de naturaleza consultiva adscrito al Departamento responsable del área de medio ambiente, que se configura como un órgano de relación, participación y coordinación de las distintas Administraciones que en materia de medio

taxutzea da organo horren egitekoa. Aipatu legeak Batzordearen oinarrizko funtzioak ezartzen ditu eta hura osatzen duten kideak zein arlotakoak diren zehazten du.

Aipatu Legea garatuz apirilaren 11ko 69/2000 Dekretuak Euskal Herriko Ingurumen Batzordearen osaketa eta funtzionamendua arautzen ditu.

Lehendakariaren irailaren 17ko 19/2001 Dekretuaren bidez —Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatu zituen Dekretua aldatzekoa dena— Administrazioko sailen egitura eta sail desberdinen arteko eskumenen banaketa berrantolatu da. Berrantolaketa honen ondorioz etxebizitza arloko egitekoak, lehen Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailaren eskumenekoak zirenak, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren eskumen izatera pasatu dira.

Aipatu egiteko zenbaitek, besteak beste lurzorua eta hirigintza, etxebizitza, arkitektura, eraikuntza eta eraikuntza-kalitatearen arloei dagozkienek, garrantzi handia izan dezakete hiriko ingurumenaren babesean, bereziki presio sortzaile diren sektoreekin duten harremanen ondorioz, adibidez, lurzoruaren erabilera, energien kontsumoa, hondakinen sorrera, trafikoa etab. Hau guztia kontuan hartuta, komenigarria ikusten da Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak Euskal Herriko Ingurumen Batzordean parte har dezan.

Bestalde, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko eskumen banaketa eta antolaketa administratibo berriekin bat eginez, Lurralde Antolamendu eta Biodibertsitate Sailburuordetzak lehengo Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Sailburuordetza ordezkatu du, zeinak, bere aldetik, ordezkotza bazuen Ingurumen Batzordean 69/2000 Dekretuaren 3 b) artikuluak xedatutakoaren arabera.

Era berean, azaroaren 20ko 306/2001 Dekretuak, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko egitura organikoa ezartzeko denak, bere 14 d) artikuluan Ingurumenaren Plangintza, Partaidetza eta Kontrolerako Zuzendaritzari egozten dio Euskal Herriko Ingurumen Batzordearen idazkari izatea, eta laguntza teknikoa emateko eginkizuna. Egiteko horiek, 69/2000 Dekretuak, desagertutako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saileko Ingurugiro Baliabideen Zuzendaritzari egozten zizkion.

Ondorioz, Eusko Jaurlaritzako Aholku-Batzorde Juridikoari entzun ondoren, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2002ko apirilaren 9ko egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

ambiente actúan en la Comunidad Autónoma del País Vasco. La citada Ley establece las funciones básicas de la Comisión y determina los ámbitos de representación de los miembros que la integran.

En desarrollo de la citada Ley, por Decreto 69/2000, de 11 de abril, se regulan la composición y funcionamiento de la Comisión Ambiental del País Vasco.

La reordenación de la estructura departamental de la Administración y de la asignación competencial a los diferentes Departamentos de la misma, establecida por el Decreto 19/2001, de 17 de septiembre, del Lehendakari, por el que se modifica el Decreto de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, ha supuesto que las funciones relativas al área de vivienda, antes asignadas al Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente, se hayan atribuido al Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

La importancia que algunas de dichas funciones, como las relativas al suelo y urbanismo; vivienda, arquitectura; edificación y calidad en la construcción, pueden tener en la preservación del medio ambiente urbano, por su relación con sectores generadores de presiones, por utilización del suelo, consumo de energías, generación de residuos, tráfico, etc., aconseja la participación del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales en la Comisión Ambiental del País Vasco.

Por otra parte, y acorde con la nueva asignación competencial y ordenación administrativa del Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, la Viceconsejería de Ordenación del Territorio y Biodiversidad ha sustituido a la antigua Viceconsejería de Ordenación del Territorio y Vivienda, representada en la Comisión Ambiental, según lo dispuesto en el artículo 3 b) del Decreto 69/2000.

Así mismo, el artículo 14 d) del Decreto 306/2001, de 20 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, asigna a la Dirección de Planificación, Participación y Control Ambiental, las funciones de secretaría y apoyo técnico a la Comisión Ambiental, funciones que el Decreto 69/2000 atribuía a la Dirección de Recursos Ambientales del extinto Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente.

En su virtud, oída la Comisión Jurídica Asesora del Gobierno Vasco, a propuesta del Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno, en su sesión celebrada el día 9 de abril de 2002,

XEDATU DUT:

*Artikulu bakarra.–* apirilaren 11ko 69/2000 Dekretua, Euskal Herriko Ingurumen Batzordearen osaketa eta funtzionamendua arautzen duena, aldatzea, ondoko pasarteetan: 3. artikuluko 1.b), 1.c), 4 eta 5 idatzzatiak. Horrela geratuko dira:

«1.b) Lurralde Antolamendu eta Biodibertsitate sailburuordea»

«1.c) Eusko Jaurlaritzaren sail hauetako sailburuorde bana: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa; Herrizaingoa; Industria, Merkataritza eta Turismoa; Etxebizitza eta Gizarte Gaietakoa; Osasuna; Garraio eta Herri Lana eta Nekazaritza eta Arrantza.»

«4.– Ingurumenaren Plangintza, Partaidetza eta Kontrolerako zuzendaria izango da Euskal Herriko Ingurumen Batzordearen idazkari, bozdun baina botorik gabe.»

«5.– Ingurumenaren Plangintza, Partaidetza eta Kontrolerako Zuzendaritzak laguntza teknikoa emango dio Euskal Herriko Ingurumen Batzordeari gaiak eta dokumentazioa prestatzeko.»

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

Apirilaren 11ko 69/2000 Dekretuak, Euskal Herriko Ingurumen Batzordearen osaketa eta funtzionamendua arautzen duenak, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari zein sailburuari egiten dizkien aipamenak Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailari edota sailburuari egiten zaizkiela ulertuko dira.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2002ko martxoaren 9an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Lurralde Antolamendu
eta Ingurumen sailburua,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

DISPONGO:

*Artículo único.–* Se modifican los apartados 1.b) y c); 4 y 5 del artículo 3 del Decreto 69/2000, de 11 de abril, por el que se regulan la composición y funcionamiento de la Comisión Ambiental del País Vasco, que quedan redactados de la siguiente forma:

«1.b) El/La Viceconsejero/a de Ordenación del Territorio y Biodiversidad.»

«1.c) Una persona con rango de Viceconsejero/a en representación de cada uno de los siguientes Departamentos del Gobierno Vasco: Educación, Universidades e Investigación; Interior; Industria, Comercio y Turismo; Vivienda y Asuntos Sociales; Sanidad; Transportes y Obras Públicas; y Agricultura y Pesca.»

«4.– Ejercerá las funciones de Secretario/a de la Comisión Ambiental del País Vasco, con voz pero sin voto, el Director/a de Planificación, Participación y Control Ambiental.»

«5.– El apoyo técnico a la Comisión Ambiental del País Vasco, en lo relativo a la preparación de asuntos y documentación, corresponderá a la Dirección de Planificación, Participación y Control Ambiental.»

DISPOSICIÓN ADICIONAL ÚNICA

Las alusiones que en el Decreto 69/2000, de 11 de abril, por el que se regulan la composición y funcionamiento de la Comisión Ambiental del País Vasco, se hacen al Departamento o Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente, se entenderán hechas al Departamento o Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 9 de abril de 2002.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Ordenación del Territorio
y Medio Ambiente,
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.